

## PAI: IRABAZI KONBENTZITU GABE

Pasa den abenduaren 21ean Nafarroako Estola Kontseiluak datorren ikasturtetik aurrera PAI programa arautuko duen Foru Agindua aztertu ondoren, aldeko ebazpena onetsi zuen.

**steilasek** osoko bi emendakin aurkeztu zituen. Lehenengoan egitasmoa bertan bera gelditzeko eskatu genuen, bai eta berregiteko ere; eta horretarako, arrazoï pedagogikoak zein antolaketa mailakoak argudiatu genituen. Bigarrenean, berriz, Mahai Sektorialean aurkeztu ez izana salatu genuen; ezinbestean hala egin behar baitzuten. APYMA federazioek, euren aldetik, parte-hartzea burutu ez izana argudiatu zuten proiektua erretiratzeko. Argudioak ikusita, **steilasek**, Kontseiluko hainbat hezkuntza-eragilerekin batera, “in voce” aurkeztu zuen emendakin bat. Horretan Hezkuntza Departamentuari egitasmoa bertan bera gelditzeko eskatu genion, horren berridazketa, eta horretarako hezkuntza-eragileen parte-hartzea gauzatzeko.

Aurreko gobernuak modu nahasian eta plangintzarik gabe eraman zuen aurrera PAI. Egitasmoak nahasmendu hori arautzea du helburu. Laudagarria da, baina begi-bistakoa da ez duela kontsentsurik, ezta babesik ere. UPNek eta PSNek programa bultzatu zuten planifikaziorik eta baliabiderik izan gabe, eta hori guztia euskararen hedapenari aurre egiteko asmoz; bi alderdiok aukera paregabea aurkitu dute etengabeko liskarrerako, gobernu berriak erakutsi duen komunikazio egoki eza, eta erakutsitako zalantzak direla eta. **steilasek** eta beste hainbat hezkuntza-eragilek gobernu berriari jarritako itxaropenak huts egin du, benetan espero baikenuen gobernuak behar bezalako ausardia erakutsiko zuela eta hizkuntzen irakaskuntza – ikuspuntu zientifikotik eta oinarri pedagogiko sendoetan oinarriturik – arautuko zuela. Ez da horrela izan.

Aldaketaren Gobernuak deus gutxi aldatu nahi du. Programaren ardatz nagusia bere horretan mantentzen du. Deigarria da ardatz hori zela oraingo gobernuan dauden alderdien kritika nagusia. Gaizki ulertutako ikastetxeen autonomian utzi nahi dute programaren helburuen ezarpena. Gure ustez, horrela egiteak planifikazio orokorra egiteko gaitasun eza erakusten du. Gauzak honela, ez da helburu komunik; ikastetxe bakoitzak askatasuna izanen du helburuak zehazteko. Are gehiago, ikastetxe bakoitzak zehaztuko du zein arlotan eta zenbat orduz ezarriko den irakaskuntza atzerriko hizkuntzan. Aitzitik, AICLE izeneko metodologia erabili behar da, hots, edukien bitartez egingo da. Ez da bestelako irakaskuntza mota ahalbidetzen, hala nola, hizkuntzen trataera bateratua, translanguaging, proiektu eleanitzak...

Behin eta berriro hizkuntzen irakaskuntza liskar politikotik ateratzeko beharra azpimarratu dugu, eta eskatu dugu kontuan izateko estatuko zein Europako beste hainbat tokitan egiten ari diren esperientziak, bereziki bi hizkuntza propio duten herrialdeetakoak. Hau da, adituen proposamenak irakurtzeko eta aztertzeko. **steilasek**, pasa den otsailean, hizkuntzen irakaskuntzari buruzko berariazko jardunaldiak antolatu zituen Iruñean, eta mundu mailako adituek hartu zuten parte. Besteak beste, Nafarroako PAIren inguruan dagoen hainbat mito erautsi ziren. Horietako batek dio zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobea; horretaz gain, behin “adin kritikoa” pasatu ondoren, edozein ikaspena zailagoa dela. Hirugarren mitoak dio hizkuntzak modu soltean irakatsi behar direla, esparru isolatu moduan. Bide honek, berriz, ikasleak duen hizkuntza-ezagueratik abiatzea oztopatzen du. PAI ezarrita dagoen hainbat ikastetxetan joera berria zabaldu da eta, horren arabera, irakasleek irakasten duten hizkuntzan soilik burutu behar dute eguneroko komunikazioa. Litekeena da ikasleek pentsatzea irakasle horiek hizkuntza bakarra menperatzen dutela, eta inguruarekin erlazionatzeko zailtasuna duten pertsona horiek tematuak direla pertsona eleanitzak sortzeko.

Ikuspuntu pedagogikotik, pentsatzen dugu ez dela komenigarria hasia atzerriko hizkuntzen irakaskuntza Haur Eskolan. Bi dira arrazoiak: ez dago hizkuntza-akreditazio egokia duen behar adina irakasle, eta, bereziki, nerabezeroaren aurrean zein nerabezeroan ematen baita atzerriko hizkuntzak ikasteko momentu egokiena. Behar bada, Lehen Hezkuntzaren azken zikloan, ez lehenago, hizkuntza horretan ematen den ordu kopurua handitzen ahal da, eta horretaz gain, bestelako baliabideak gehitu: elkartrukatzeko programak, egonaldiak atzerrian, jarduera osagarriak... Baina horren guztiaren aurrean bertako bi hizkuntzen irakaskuntzarako bideraturiko baliabideak handitu behar dira, ikasle guztiek konpetentzia egokiak erdiesteko.

Zentzugabea da ezartzea curriculuaren %50 atzerriko hizkuntzan bederatzi ikasturtetan, 4000 ordu baino gehiago suposatzen duena, pertsona heldu batek 300 ordutan lortzen ahal duen helburua gauzatzeko; beti ere, ontzat ematen baditugu 2015-2016 ikasturtean British-PAI ikastetxeetako 6. mailako ikasleei egindako ebaluazioak aditzera eman duen helburuen betetze mailaren datuak.

Bukatzeko, pentsatzen dugu hizkuntzen ikaskuntza kohesio sozialaren mesedetan egin behar dela, bai eta ikasleen aukera berdintasunaren mesedetan ere. Horretarako, Nafarroako ikasle guztiek bertako hizkuntzen ezaguera egokia bermatu beharra dugu. Horretaz gain, ikaslearen jatorrizko hizkuntza errespetatu behar dugu; errespetatu eta bultzatu. Bestalde, hezkuntza eskubide bereziak dituzten ikasleei zuzendutako helburu zehatzak ere ezarri behar dira, euren egoerari egokituak.

PAI eredu bihurtzea ez da irtenbidea. Hainbat alderdik eta elkartek aurkezten duen proposamen honek handituko luke Nafarroako ikasleek duten curriculum eskaintza desoreka. Aitzitik, ikasle guztientzako eredu eleanitzaren alde, komun eta bakanaren alde, egiten dugu.

Alde txikiaz irabazi zuen gobernuaren proposamenak lehengo eguneko bilkuran. Gobernua eztabaida itxi nahian dago, baina, gure ustez, nafar hezkuntza kinka larrian utziko du, eta eztabaida ezin da honela itxi. Gobernuari ausardia eskatu diogu gaiari heltzeko, egoerak eztanda egin baino lehen.

Kontua ez da aldeko boto gehiago biltzea. Helburuak bestelakoa behar du izan: hizkuntza guztien irakaskuntzarako egokiena den alternatiba pedagogikoa adostea eta bultzatzea.